

Sexualitate anitzei arreta emanez ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiaren 2014ko Prestakuntza Planaren lehen ikastaroa egin da Bilbon

Sexualitate anitzei arreta emanez ikastaroa egin da Bilboko [Gazteen Euskal Behatokiaren](#) egoitzan, 2014ko urtarrilaren 28an eta otsailaren 4 eta 11n. Eragile sozializatzaileek gazteen sexualitateei arreta ematen jarraitzea da ikastaroaren helburu nagusia. Arreta hori lantzetik hasi behar da, identitate sexualean, desioaren orientazioan edo ahalmenetan dauden aniztasunak aintzat hartuta eta horien onarpena sustatuta.

Ikastaroa **Emaize Sexologia Zentroko** sexologoek eman dute, **Ana Ramirez de Ocáriz Sorolla**, eta **Inma Ruíz de Lezana**.

21 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 43, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Bestetik, % 10 gazteriaz aparteko beste eremu batzuetan (inmigrazioa, generoa, sexualitatea, drogomenpekotasunak, etab.) lan egiten dute.
- Beste % 38 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Azkenik, % 9 beste lanbide-profila dituzten lagunak izan dira.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, bosna orduko hiru saiotan banatua.

Ikastaroko ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (Otik 10era bitarteko eskalan):

